

/ Nabarmenezkoak

- > Tailerrak egingo dira Zientzia Astean, Punta Begoñan (2. or.)
- > Mendeko pertsonen senide zaintzaileen Topaketa (3. or.)
- > 2. "Ramiro Pinilla" eleberri laburren Lehiaketa (4. or.)



Dantza plazan. Azaroak 3, larunbata, 19:00etan, Romoko Santa Eugenia plazan, euskal dantzak bertoko taldeen eskutik. Antolatzailea: Zasi Eskola.

A-GENDA

"Bakun" ikuskizuna. Azaroak 10, larunbata, 18:00etan, Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, Basabi taldearekin. Sarrera: 5€ (3€ ikasleentzat).

Hornidurako sarearen sektorizatzea iaz amaitu ondoren

468.000 m³ ur aurreztu dira urtarriletik abuztura, eta ondorioz 177.000€ gehiago dira udaleko diru-kutxan


468.000 m³ ur aurreztu dira Getxon aurtengo lehen zortzi hilabeteetan –urtarriletik abuztura-, hau da, udalerrian kontsumitu den ur guztiaren %6 inguru aurreztu da aipatutako epealdian. Datu horiek arlo ekonomikora eramanda, 177.840€ko aurrezpena ekarri dute udaleko diru-kutxetara. Datu on horiek, ur-ihesak aurkitu eta konpontzeko eta sareko hainbat elementu (sute-ahok, ur-harguneak, balbulak, iturriak...) modernizatzeko kanpainaren emaitza dira; hain zuzen ere, Udala gauzatzen ari den kanpaina da, iaz ur edangarria banatzeko udal sarearen sektorizazio osoa amaitu ondoren abiatu zuena. Jarduketa hori, sektorizatzea, *Ur Edangarria Banatzeko Sarearen Kudeaketa Plana* delakoan aurreikusita zegoen; udal gobernua abiatu zuen egitasmoa 2012an. Horri esker, 2011 eta 2017 bitartean 6,1 milioi m³ ur eta, uraren fakturan, 2,3 milioi euro baino gehiago aurreztu dira. Ur sareko sektoreak 2014an hasi ziren jartzen eta aurtengo hasieratik 13 sektoretan banatutako sarea dago eratu; sektore bakoitzak bere emari-neurgailua (kontagailua) eta bertan ura sartzeko presio-hargunea dauka. Getxon 214 km ditu ur-hornidurako sareak, hiri barruko eta landa-bideetako sareak (hodi-sarea + hargune-sarea), eta, besteak beste, 70 iturri eta 1.250 ur-hargune daude bertan, sare osoan zehar.

Datu esanguratsuak

Udal gobernua aipatutako Kudeaketa



2017 URTEKO EMAITZAK



EMAITZAK: 2011-2017

ERRENDIMENDU TEKNIKOAREN HOBEKUNTZA: %61,95 → %71,87
UR KONTSUMOA BIZTANLE ETA EGUNEKO: 317 → 268 LITRO

AURREZTUTAKO URA 2011 ETA 2017 BITARTEAN
6.170.633 m³

EROSITAKO URAN AURREZTUTAKO 2011
ETA 2017 BITARTEAN
2.344.840 €

Uztailaren 3tik 6ra izango da

Izen-emate epea zabalik dago Getxo Jazz 2019ko Talde Lehiaketan

Getxoko Nazioarteko Jazzaldiaren 2019ko Talde Lehiaketan parte hartzeko epea dagoeneko zabalik dago. Lehiaketa datorren urteko uztailaren 3tik 6ra izango da 43. Jazzaldiaren barruan eta izena eman nahi duten bandek otsailaren 9ko 13:00etara arte izango dute epea zabalik. Europako edozein jazz estilotako bandei zuzenduta dago lehiaketa. Parte hartu ahal izateko, taldekide guztien gehienezko adina 30 urtekoa da, 2019 urtean betetzekoa eta inskribatzeko orduan egiaztatu beharrekoa. Lehiaketaren arauak eta on-line izena



emateko formularioa dagoeneko eskuragarri dago <http://www.getxo.eus/eu/getxo-jazz> webgunean. Guztira, lau talde aukeratuko dira finalean lehiatzeko, eta behin betiko hautapen hori martxoan erabakiko da. Talde irabazleak 4.300 euro jasoko ditu eta disko bat grabatuko zaio zuzenean, kontzertua eskaintzen duen egun berean (edizioaren zati bat jasoko du) eta, halaber, Lovainako (Belgiako) B-Jazz eta Eivissa Jazz jaialdietan parte hartuko du txapeladunak, Getxo Jazzek musikaldi horiekin duen akordioari esker.



AZAROAK 2 OSTIRALA

Ingurumen Aretoa. E"Emakumea lanean" argazki erakusketak. Urtarrilaren 7ra arte, sarrera dohainik, Larrañazubi auzoa 12 B.

AZAROAK 3 LARUNBATA

Ingurumen Aretoa. "Altxorren bila", 10:00etatik 14:00etara. Doako jarduera, Larrañazubi auzoa 12 B

Errezitaldia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:30ean, Jose M^o González (baritonoa) eta Pía Rojasen (piano-jotzailea) emanaldia. Sarrera dohainik (Musika Eskolan gonbidapentxartela hartu behar da).

Dantza Plazan. Romoko Santa Eugenia plazan, 19:00etan, euskal dantzak Agurra, Berantziaga, Itxartu, Itxas Argia eta Zasi Eskola taldeekin. Antolatzailea: Zasi Eskola.

AZAROAK 4 IGANDEA

Ingurumen Aretoa. Txiki tailerak: Egin ezazu zure diru-zorroa material desberdinak berrerabiliz (komikiak, gaitza bakeroak eta abar). Doako jarduera, 6 eta 14 urte bitarteko umeentzat, Larrañazubi auzoa 12 B

Antzerkia. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 19:00etan, "La noche secreta", Xankoreren eskutik. Sarrera: 3€. XI. Emakumeak eszenan.

AZAROAK 5 ASTELEHENA

Musikume. Musika familiarrean. Elebiduna. 1. saioa: 17:00-17:45, 0 eta 15 hilabete arteko haurtxoentzat; 2. saioa: 18:00-18:45, 15 hilabete eta 3 urte artekoentzat. Sarrera: 3€ (haurtxoa + pertsona nagusia). Salmenta alde aurretik Musika Eskolan. Mantatxoa eraman haurtxoarentzat lurrean ipintzeko.

Mugabarik. Norbanakoen trerbatze eta garapenerako Elkarrea. Hitzaldia: "El envejecimiento en Euskadi". Hizlari: J.R.Urrutia (ekonomilaria). 19:30ean, Villamonteko Kultur Etxean.

AZAROAK 6 ASTEARTEA

Solasaldia. "Los cuidados, las Migraciones y las responsabilidades compartidas" 19:00etan, Adinekoen BBK zentroan. Partaideak: Emilia Larrondo de Martino, Katia Henríquez eta Cony Carranza.

Adinekoen BBK zentroan. Partaideak: Emilia Larrondo de Martino, Katia Henríquez eta Cony Carranza.

AZAROAK 7 ASTEAZKENA

Hitzaldia. RKE-Romo Kultur Etxean, 19:00etan, "Margaret Atwood: El cuento de la criada...y más", Josune Muñozen eskutik (Skolastika). "Mujeres creadoras de cultura" hitzaldi-zikloaren barruan. Sarrera dohainik.

Erakusketa. Romo Kultur Etxean, "Argazki-erakusketa: Getxo-Plentzia trenbide-linearen 125. urteurrena". Hilaren 30era arte.

Liburu aurkezpena. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, José Luis Cuestaren "Narraciones bajo el arcoiris". Sarrera dohainik, edukiera bete arte.

AZAROAK 8 OSTEGUNA

Getxo zuzenean. Algortako The Piper's Irish Puben, 20:00etan, Daniel Merino (pop-rocka).

AZAROAK 9 OSTIRALA

Kontularien Kluba. Algortako Kultur Etxean, 19:00etan, ipuin-kontalaria izan edo entzun nahi duten nagusiez osatutako kluba. Sarrera dohainik.

Cinema Paradiso. 2018/19 denboraldiaren hasiera. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 21:00etan, azpitiuludun jatorrizko bertsioan, "El Capitán" filmaren proiektzio eta foruma. Zuzendaria: Robert Schwenke. Hizkuntza: alemanera. 16 urtetik gorakoentzat. Sarrera: 3,50€.

Biotza Gazte, Azebarri Kultur Txokoan, 20:30ean, Juan Jose Eizmendi eta Xabier Zeberio bertsolariekin eta OXABiren musikarekin. Doako sarrera. ALBEK antolatuta.

Kontzertu solidarioa, San Martin de Tours GKEaren alde, San Martin parrokian, 19:30ean, Armonia abesbatza eta Ander Entzindorekin.

AZAROAK 10 LARUNBATA

"Bakun" ikuskizuna. Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, 18:00etan, Basabi taldearekin. Sarrera: 5€ (3€ ikasleentzat). Salmenta alde aurretik Musika Eskolan.

AZAROAK 11 IGANDEA

San Martineko kontzertua. Algortako Tourseko San Martin elizan, 20:00etan, Irutasun abesbatza getxotarraren emanaldia. Sarrera dohainik.

- **Errentan** garaje partzela Areetan, Cervantes kalean, Sener enpresaren aurrean. 90€/hileko. Tel.: 657 03 12 41.

- **Gizonezkoa** prest dago adinekoak zaintzeko eta etxeak garbitzeko, orduka. Tel.: 682 132 602.

- **Neska prest dago** pertsona zaharrak zaintzeko eta etxeak garbitzeko, orduka eta asteburuetan. Tel.: 638 71 52 71.

- **Neska eskarmetuduna** lan bila dabil garbitzeko, adinekoak zaintzeko... Erreferentziekin. Tel.: 612 57 27 95.

- **Klaseak** Ingenieritza ikaslea mate, fisika eta marrazketa klaseak emateko prest. Tel.: 665 743 964. Regina.



- **Salgai** bi kanaberazko oheburuko, 90koak, eta ohe-mahaitxoak barne, marketeria-esekitoki eta aterki-ontzi konbinatuak eta erdiko mahaia 1,20x70 neurrikoak. Tel.: 670 042 605.

- **Eskolaz kanpokoak** irakurmena, idazmena, giza zientziak, eskarmetu handiko lizentziatuarekin. Tel.: 606 335 429.

Norberaren iragarkiak direnez gero, aldizkari hau ez da horien edukia egiazko-tasunaren erantzule izango.

Tratu txarren biktimak artatzeko Eusko Jularitzaren telefono zerbitzua: 900 840 111

Tailerrak egingo dira Zientzia Astean, Punta Begoñan

Azaroaren 7tik 10era, Punta Begoñako Galeriak UPV/EHUK antolatutako Zientzia, Teknologia eta Berrikuntza Astearen agertoki izango dira. Aurten, tailer didaktiko eta parte-hartzaileak egingo dira berriro, galeriak berreskuratu eta beren balioa nabarmentzeko lanean ari den euskal unibertsitate publiko bertako ikerketa-taldearen eskutik.

Tailerrak *landa-bisitaldi* baten erara antolatuko dira, zer egiten duten ikusi, galdetu, ezagutu, argazkietan jaso eta esku-hartzea bermatuko diena parte-hartzaileei. Tailer horietan, honako gai hauek aztertuko dira: *Tren geologikoa. Paisaiaren aldaketa fisikoa handiak bertatik bertara. Nola heldu gara honaino?; Bastidaren erroka handia. Nola jokatzeko arkitekto batek toki benetan zailean eraikinetik eder eta iraultzaileena egiteko eskatzen diotenean?; Kimikak nola hondatzen dituen eraikinetik eta gure habitata; Elkarrekin*



horma-irudi bat egitea, Punta Begoñako historia ederra eta bertako areto nagusia islatzeko. Punta Begoña berreskuratzea getxotarrentzat eta bisitan datozenentzat; eta Zientzia Punta Begoñan, Sarearen esperientziak, non parte-hartzaileek argazkitan jaso ahalko duten zientziaz beteriko eguna eta sare sozialetan partekatu. Tailerrak jende guztiarentzat – gazte, nagusi, familia, talde...

egongo dira zabalik, gaztelaniaz eskainiko dira, ordubeteko iraupena izango dute eta 30 pertsona onartuko dira taldeko. Azaroaren 7, 8 eta 9an (asteazken, ostegun eta ostirala) 17:30ean emango dira eta 10ean (larunbata) 12:00etan. Topagunea Arriluzeko kaiko bisitarien gunearan ondoan dagoen Galerietako sarreran izango da. Izen-emateak: www.zientzia-astea.org/es/.



"Olatuan Bilbao Bizkaia Cruise Talks"

Tokiko sektore turistikoaren 150 profesionalak hausnakerta egin zuten, joan den astean, itsas terminalean, gurutzaldien turismoaren etorkizunari buruz, Bizkaiko Foru Aldundiak sustatua, Portuko Agintaritzak antolatuta eta Bilboko eta Getxoko Udalen laguntzaz egindako jardunaldian. Topaketak profesional eta destinoen eta erakunde publikoen kudeatzaile elkartu zituen estatuko eta nazioarteko sektoreko aditu ospetsuekin, hitzaldi eta mahai-inguruetan hainbat gai lantzeko, besteak beste, cruise friendly helmugak, itsas bidaien funtzionamendua eta nola prestatzen den bidaiarienezko eskaintza. Imanol Landa alkateak, inaugurazio ekitaldian parte hartu zuen eta Getxo udalerraren apustua nabarmendu zuen turismo mota hori sustatzeko. Horretarako, esan zuen, ekonomia-sustapenaren bitartez tokiko garapena bultzatu behar da.

GetxoMeeting hurrengo topaketak

Azaroak 8 eta 22, eta abenduak 13 izango dira GetxoMeeting hurrengo topaketak, enpresa txiki bat dutenentzat eta beste ekintzaile batzuk ezagutu nahi dituzten pertsonentzat euren negozioa hobetzen duten bitartean zuzenduta.

Azaroak 8, saioaren gaia *Eta zuri, zerk funtzionatzen dizu estresa kudeatzeko?* izango da; azaroak 22 *Zer dio zure irudiak zure negozioari buruz? Zure inguruko enpresaburuekin aldera ezazu eta abenduak 13 Jarduteko hausnartzea.* Saioak dohainik izango dira eta 14:30ean hasiko dira Getxo Elkartegiaren instalazioetan (Ogoño 1, Areetan). Informazio gehiago udal webgunean: <http://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/303>

Diesela edo Gasolina? Ez zaitzatela nahastu

Gasolindegia pasatu den urriaren 12az geroztik sinbolo eta etiketa berriez bete dira. Gasolindegietan aurkitzen ditugun izendapenen aldaketaz gehiago jakiteko, eCivis elkarteak hitzaldi bat antolatu du datorren asteazkenean, azaroak 7, 19:00etan hasita, Romo Kultur Etxean, Mikel Iribarren, Estaciones de Servicio de Bizkaia izeneko elkarte buruaren partaidetzarekin. Sarrera doakoa izango da, eta tokien kopurua mugatua izango denez, gomendatzen da aurretik 620 237 036 telefono zenbakian, info@ecivis.eus edo <https://combustibles.eventbrite.es> helbideetan izena ematea.



Bentaranoa proiektuari emandako akzesita jasota

Amaia Agirrek, Gardentasun eta Komunikazio zinegotziak jaso zuen aurreko astean Bentaranoa proiektuak 2018ko NovaGob (administrazio publikorako gizarre-sarea) Sarietako Gobernu Irekiaren arloko ekimenik onenaren akzesita. Arlo horretan beste 11 proiektuekin batera aurkeztu zen getxotarra. Sariak Toledon, Berrikuntza Publikoari buruzko V.Biltzar Ibero-amerikarrean egindako ekitaldian banatu ziren aurreko astean. Bentaranoa izeneko proiektua partaidetza-prozesua da eta bere helburua da Udalaren La Venta izeneko eraikina berriro irekitzea, Getxoko hiritarren laguntzarekin.

Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak "Irisgarriak gara" kanpainari buruzko balantzea egin du

FEKOOR-ek ikertutako 322 ostalaritza-lokal eta dendetatik bakarrik 76 dira guztiz irisgarriak

FEKOORek, Gutxitasun Fisikoa eta/edo Organikoa duten Pertsonen Bizkaiko Federazio Koordinatzaileak, *Irisgarriak gara* kanpainaren irisgarritasun-txostena aurkeztu du. Kanpainak Romo-Areetako 322 ostalaritza-lokal eta denden irisgarritasuna ebaluatu du, 3 irisgarritasun-irizpide kontuan hartuz: lokalerako sarrera, bainugelen irisgarritasuna eta barneko bizigarritasuna. 322 saltokietatik bakarrik 76 dira erabat irisgarriak, hau da, hiru irizpideak betetzen dituztela. Kanpainaren helburua da Irisgarritasun-araudiaren betearazpena ebaluatzea, irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren aldeko kontzientzia handiagoa sortzeko herritarren artean. Txostenak irisgarritasunari buruzko legearen betearazpen-maila txikia dela adierazten du, baina establezimenduen interesa gero eta handiagoa dela ere badio, horregatik gero eta gehiago dira lokal irisgarriak edukitzeko ahalegina egin duten establezimenduak.



2015 eta 2018 urte bitartean, kanpaina Bilboko Zazpi Kaleetan, Deustun, Indautxun, Barakaldon, Galdakaon eta Getxon abiarazi da, eta pixkanaka Bizkaiko beste herri batzuetara hedatuko da, FEKOOR-en bozeramaileak, Juan Carlos Solak, azaldu duen bezala, "aldaketa eragin eta irisgarritasun unibertsalarekin konprometitu dagoen herri-mugimendua sustatzeko helburuarekin".

Kanpaina honetan, Romo-Areetako 322 denda eta ostalaritza-lokal, taberna eta jatetxeetako irisgarritasun-baldintzak baloratu dira, (zehazki 253 denda eta 69 tabernakoak).

Datuak

Ikusitako 253 dendetatik 124 ez dira irisgarriak eta 95 (%37) irisgarriak dira, baina bakarrik 68k (%27) daukate sarbide egokia eta barruko bizigarritasun egokia. Taberna eta jatetxeei dagokienez, ebaluatu diren 69etatik, 8 (%11) dira aipatutako hiru baldintzak betetzen dituztenak eta

%100 irisgarriak dira; 38 lokalek ez dute batere irisgarritasunik. Bainugela edo komuneki dagokienez, 12 lokalek (%17) bakarrik dituzte komun egokituak.

"Datu gaitzesgarri bezala, esan dezakegu, batzuetan, bainugela egokitua egon arren, biltegitzat erabiltzen dela botila-kaxak, garbi-

ketarako gauzak edo mahaiaik eta aulkiak gordetzeko, eta beraz, ezin dira erabili", aipatu dute FEKOOR-etik.

Barneko bizigarritasuna dela eta, 14 lokalek (%20) mugikortasun urriko pertsona bat barruan eroso eta seguru egon ahal izateko lekua dute (mahai altuak, bira-

tzeko eta joan-etorrietarako leku nahikoa,...).

Aintzatespenak

Datuak aztertu ondoren, FEKOOR-ek La Despensa taberna (Mayor kalea 31, Areetako) eta San José Estankoa eta Liburu-denda (Lope de Vega kalea 11, Romo) aintzatesi ditu. Bi lokal horiek egiaztagiria jaso dute jardunbide egokiengatik Joseba Arregi Udaleko Hirigintza, Obra eta Zerbitzuetako zinegotziaren eskutik. Beren lokalean erakutsi dezakete egiaztagiri hori, irisgarritasunari garrantzia emate aldera, gizarte osoarentzako onuragarria den printzipioa baita.

FEKOOR gizarte-ekimeneko erakundea 1979. urtean sortu zen eta Eusko Jaurlaritzak erabilgarritasun publikoa aitortua dio; desgaitasun fisiko eta/edo organikoa duten pertsonen Bizkaiko 20 elkarte nagusiak biltzen ditu eta 8.000 pertsonatik gora ditu atxikita Lurralde Historiko honetan.

Genero berdintasuna eta sexu dibertsitatea

Tokian tokiko agintaritzak genero berdintasunaren eta sexu dibertsitatearen aldeko politika publikoak sendotzeko lanean izeneko jardunaldia izango da azaroaren 8an, ostegunean, Getxo Elkartearen, European Days of Local Solidarity-ren hirugarren edizioaren barruan, Udalak antolatuta. Euskal Fondoaren eta Europako Batzordearen laguntza duen Plataforma, Europako hiri eta eskualdeen

sarearen eta Europar Batasunaren laguntzarekin, helburua da herrialdeetan lankidetzaren deszentralizatu agenda globalaren elementu garrantzitsutzat hartzea. Besteak beste, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziako, Zabalketa GKE eta Guatemalako INCIDE Fundazioko ordezkariak hartuko dute parte. Izenematea: euskalfondoa@euskalfondoa.org.



Mendeko pertsonen senide zaintzaileen Topaketa

Udalak mendeko pertsonen senide zaintzaileen I. Topaketa antolatuta du azaroaren 5erako, astelehenean, Romo Kultur Etxean, azaroaren 6an ospatzen den Nazioarteko Pertsona Zaintzailearen Eguna dela eta. Jardunaldia 12:00etan hasiko da; 12:45ean Naiara Fernández mediku geriatrak *Diario de un camino contigo* izeneko hitzaldia eskainiko du eta ondoren, Elena Coria Gizarte Zerbitzuetako zinegotziak azalduko du udal jarduna. Mokadu baten ondoren, 15:30ean, *Cuidadores* izenburuko pelikula proiektatuko da, doako sarrerarekin. Topaketan parte hartu nahi duten pertsonak izena eman behar dute 683 193 092 telefono zenbakian.



Oporrak Bakean programari buruzko jardunaldia RKen

Haur sahararrak uda bertoko familiekin ematera ekartzen dituen Oporrak Bakean programaren koordinazio eta antolaketan aurrera egiteko, 50 bat pertsonak parte hartu zuten larunbatean, urriak 27, horri buruzko jardunaldi teknikoan Romo Kultur Etxean. Parte hartzaileen artean, Sahararen aldeko elkarteak (tartean Getxoko ATFAL), Euskadi Fronte Polisarioaren delegazioa, Euskal Fondoa, Tokiko Euskal Erakunde Kooperanteen Elkarte, eta Euskadiko hainbat udaletako Garapenerako Lankidetzako teknikariak izan ziren. Bertan bildutakoak azken urteetako harreraren datuen konparaketaz, harreraren lege-gaiez eta 2019ko kanpaina bateratuaren aurkezpenaren antolaketaz mintzatu ziren, besteak beste.



Xankorek “La noche secreta” aurkeztuko du

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan antzeztuko du Xankore taldeak *La noche secreta* antzezlana, igande honetan, azaroak 4, 19:00etan. Muntai horrekin emango zaio hasiera, hain zuzen, hamaikagarren *Emakumeak eszenan* An-

tzerki Zirkuituari; Besarkadak, antzerki amateurreko taldeen Federazioak, bultzatzen du zirkuitua. Saioa ikusteko sarrera 3 € da.

Laburpena

Gaur, antzokia irri-irri batean bihurtuko da; gauero, andre esataria, bere teknikari adeitsua lagun duelarik, hainbat eta hainbat etxeetan sartuko da. *La noche secreta*-n, entzule leialek deitzen dute, beraien sekretuak aitortzeko; oraingo honetan, gau berezia izango da. Izan ere, aitortu ezin den isileko batek bide emango dio programa korapilotsu bati. Nahaste-borraste hau konponduko ote da? Ezezagun guztiei erantzunik emango al zaie? Bakarrik *La noche secreta*-ren ikusleen artean bazaude iritsiko zara antzerki-irri labirinto honen amaierara.



Instalazioak eta argazkiak Torrenen

Getxoarte 2018 dela eta, Algortako Torre-aretoak Paco Chanivetek *Postcapitalism Relics* goiburuko erakusketa hartuko du azaroaren 25era arte. Gehien bat, argazki eta instalazioak dira, azken horiek hainbat objektu eta materialekin eginak (aiztoak, TB idulkiak, silizio piezak, ure-tanoa...).

Areetako Andrés Isasi Musika Eskolak *Musika, barrutik: topaketak musikarekin eta musika arloko profesionalekin* izeneko zikloa antolatu du. Azaroan eta urtarrilean egingo den ekimen honen helburua da zaleei musika klasikoaren unibertso-rako bidea zabaltzea eta melomanoak konposaketaren, interpretazioaren eta ikerkuntza musikaren zokoetan barre-

na gidatzea modu erakargarri eta interresgarrian.

Zikloa azaroaren 7an eta 14an eta urtarrilaren 16an eta 30ean izango da, eta horren baitan grabatutako zein zuzeneko musikaz ilustratutako hitzaldiak izango dira.


Saio bakoitzaren ildoak izango dira ondorengo hurrenkeran: *World timbres mixtu-*



“Txiki Baskardo” lehiaketa

Halaber, 2. *Txiki Baskardo* haur kontakizunen Lehiaketa abian jarriko da, DBHko 1. Maila egiten ari diren getxotar ikasleen artean literatura sorkuntza sustatzeko helburuarekin. Lehiaketan parte hartzeko bi modalitate egongo dira: norberaren ikastetxearen bitartez edo nor bere kabuz. Kasu bietan finalean parte hartuko duten hautagaiak aukeratuko dira eta finalean izango dituzte jokoan sariak. Sari bat izango da hizkuntza bakoitzeko eta irabazleek tablet elektronikoko bat jasoko dute. Horrez gainera, finalistei diploma bat emango zaie eta baita Getxoko edozein liburu-dendatan liburuak erosteko 50 euroko txeki bat.

Deialdien arauak www.getxo.eus/ramiropinilla eta www.getxo.eus/txikibaskardo.



Areetako Andrés Isasi Musika Eskolan, azaroan eta urtarrilean

“Musika, barrutik: topaketak musikarekin eta musika arloko profesionalekin” zikloa

re: *nuevos materiales para la composición; Move Your Fingers on the piano: un método y un libro “de casa”; El teatro de Pablo Sorozábal: conferencia ilustrada; eta The inner child: concierto a la carta.*

Lehenengo hiru saioak Musika Eskolako Mediatekan izango dira (sarrera: 3€) eta azkena areto nagusian (sarrera: 5€; 3€ eskolako ikasleentzat).

re: *nuevos materiales para la composición; Move Your Fingers on the piano: un método y un libro “de casa”; El teatro de Pablo Sorozábal: conferencia ilustrada; eta The inner child: concierto a la carta.*



“El bosque sabe tu nombre”, gertakari literarioa

Alaitz Leceaga idazle getxotarrak (1982) Algortako liburutegia bisitatu berri du *El bosque sabe tu nombre* (Ediciones B, 2018) liburuaz hitz egiteko; bere eleberririk arrakastatsuen horrek bost edizio izan ditu eta eskubideak saldu ditu film edo telebistarako serie bat egiteko. Getxotarraren bosgarren eleberria da. “*Historian zehar ikusezin bihurtu dituzten emakume boteretsu eta borrokalarien kontakizuna da. XX. mendearan hasieran etxe indiano batean girotua dagoen istorio honek erreferente asko ditu eta bertan euskal mitologia, natura basatia eta pasioak ere protagonista dira*”. 2008 eta 2011 urte bitartean, Alaitz Leceagak kontaketa labur asko idatzi eta argitaratu zituen Interneteko hainbat ataritan, gaztelaniaz eta ingelesez; horiek guztiek 60.000 baino bisita gehiago izan dituzte. 2012an bere lehenengo eleberria argitaratu zuen, *Luciérnagas al atardecer*, Ava Gale ezizenez argitaratu zuena.



Film Sozialak: bi institutu getxotar sarituta

Aixerrotako eta Romo-Artazako Institutuak saritu dituzte *Festival Internacional de Cine Invisible, Film Sozialak* izenekoan, azken bost urteotan parte hartzeagatik. Sariak Bilboko Azkuna Zentroan ospatutako amaierako ekitaldian banatu ziren, eta bertan Marian Mugerza Aixerrotako institutuko zuzendariak eta Jorge Lekerika Artaza-Romo institutuko irakasleak jaso zuten saria, Keltse Eiguren alkateordeak lagunduta. KCD, “Kultura, Comunicación y Desarrollo” Gobernu Kanpoko Erakundeak antolatzen du Jaialdia, Euskal Lankidetzako Agentziaren eta hainbat entitateen laguntzarekin, tartean Udalarena. Lanen gaiak, aurreko edizioetan bezala, giza eskubide, genero berdintasuna, kulturartekotasunari buruzkoak izan dira eta baita emakumeek egindako lanak ere. Aurtun Jaialdian aipatutako zentroetako DBHko laugarren mailako eta Batxilergoko lehenengo mailako 800 bat ikasle hartu dute parte.



23 taldek osatzen dute Arenas eta Romoren harrobia

Arenas Club eta Romo FC elkarten harrobia osasuntsu dago. Halaxe erakutsi zuten pasa den ostiralean, urriak 26, bi elkarteek beheko kategorietan dauzkaten 23 taldeak aurkezteko egin zuten ekitaldian. Guztira, 371 jokalaria dira, gazteetatik hasi eta aurrebenjaminetara; banan banan, zelairatu ziren Gobelan, beraien senitarteko eta zaleen aurrean aurkezteko. Harmailetan giro aparta izan zen. Eta han izan ziren talde

desberdinetako entrenatzaile eta prestatzaile fisikoak ere, besteak beste, maila guztietako eta multikirolakeko koordinatzaileekin, beren presidentekin, Francisco Javier Egusquiaguirre (Arenas) eta Mikel Expósito (Romo), Imanol Landa alkatearekin eta Álvaro González Kirol zinegotziarekin batera. Aurkezpen-ekitaldia amaitutakoan Gobelako ateak zabaldu zituzten jokalarien familientzat.

SIKAP Filipinasek antolatutako saskibaloitxapelketa

SiKAP Filipinas elkarteak Ambassadors's Cup izeneko saskibaloia txapelketaren beste edizio bat antolatu du azaroaren 18rako, iganderako, Gobelako kiroldegian, Getxo Kirolak eta Filipinetako Bilboko Kontsulatuaren laguntza-

rekin. Ekitaldiaren 13. ekitaldia 9:00etan hasiko da eta zortzi talderen partaidetza edukiko du, hau da, Madril,artzelona, Ibiza, Mallorca, Kanaria Handia eta Andorrako bana, eta Bizkaiko biren.

MERKATARITZA

*GetxoBonoak azaroaren 15era arte luzatuko dira.

Getxo Enpresak eta Udalak GetxoBonoak hartzeko epea luzatzea erabaki dute beherapenekin erosketei etekina ateratzeko; datorren ostegunera arte, azaroak 15, luzatuko da epea. Salgai dauden 3.000 bonuak udalerriko 160 enpresa baino gehiagotan erosi eta trukatu ahal izango dira. Enpresa horiek *GetxoBono* ekimenaren bereizgarria daukate jarrita jendeak ezagutzeko eta Getxo Enpresaren webgunean (<https://www.getxoenpresa.com/eu/>) eta Udalarenan (<http://www.getxo.eus/eu/getxolan/noticias/337>) begiratu daiteke haien zerrenda.

GetxoBono txartelarekin 50€ko balioa duten erosketak 40€ren truke egin daitezke; txartelak www.getxoenpresa.com/eu bitartez erosi daitezke, baita www.kutxabank.es orriean, eta bonuak aipatutako bankuko kutxazainetan edo zuzenean Kutxabankeko orotarako kutxazainetan inprimatu ahal dira, azaroaren 15era arte edo bonuak agortu arte; edozein kreditu/zordunketa txartelarekin erosi daitezke edozein banketxetan. Txartel bakoitzeko bi bonu erosi daitezke. Bonuak metagarriak dira tiket edo erosketak ordainagiri bakoitzean, tiketaren edo ordainagiriaren zenbatekoa bonu guztien zenbatekoaren balio osoa baino handiagoa bada. Bezeroek ezingo dute beren bonuarekin saltoki bat baino gehiagotan ordaindu; eta ezin izango diote enpresari exijitu eskudirurik itzultzeko erosketak ez bada 50€ra ailegatzeko.

*"Yo compro en Algorta, Getxon noski" kanpaina.

Iaz izandako harrera ona dela eta, Algortako Dendak Elkarteak *Yo compro en Algorta, Getxon noski* kanpaina martxan jarriko du berriro. Algortako toki-merkataritza bultzatu nahi duen kanpaina honetan elkartearen 31 saltokik parte hartzen dute. Sentsibilizazio-kanpaina honen bidez, Algortako Dendak-ek bertako ekonomia dinamizatu nahi du, "ez bakarrik guztiok irabazten dugulako, baizik eta herrian erosten dugunean lanpostuak mantentzen laguntzen dugulako, ez garelako mugitu behar oso hurbil daudelako eta, azken finean, guretzako garrantzitsuak direlako eta axola diegulako ere", aipatu dute elkarteek. Hori guztia lortzeko, parte hartzen duten saltokiek haien bezeroak sarituko dituzte azaroan poltsa pertsonalizatu bana oparituz herriko saltokietan erosteko arrazoi bat ematearen truke. Bezeroen iritzia [@AlgortakoDendak](https://www.facebook.com/AlgortakoDendak) Facebook orrialdean jasoko dira kanpaina amaitzen denean.

Halaber, bideo bat egingo da herriko dendetan erostearen garrantziaz kontzientziatzeko. Bideoa egiteko Ana Lara Dantza Eskolako ikasleen laguntza izango du Algorta Dendak-ek, eta kanpainan parte-hartzen duten saltokieta-ra haien koreografiak eramango dituzte.

Informazio gehiago: algortakodendakanpainak@gmail.com

2019.ko parte-hartze izaerako aurrekontuak. II. FASEA: Proiektuak lehenestea

urriaren 26tik azaroaren 11ra



HABetan, eta Andra Mari, Gobela eta Fadurako kiroldegietan jarritako kutxen bidez



Proposamena gobernuirekia@getxo.eus helbidera bidaliz



www.getxo.eus/partehartu udal webgunean egokitutako galdetegi digitala betez



Algorta, Areeta eta Bidezabalgo geltokien inguruetan jarritako postontzien bitartez



Astlehenean, azaroak 5, Algortako Geltokia plazan kokatuko den informazio-karpan, 11:00etatik 14:00etara eta 16:00etatik 19:00etara



Getxo
bizi ezazu

LAGUNDU GETXO HOBETZEN!

<http://www.getxo.eus/gobernu-irekia>

Udal talde politikoaren iritzia



GETXO HERRIGINTZAN

Azaroan gaude, eta Getxoko Euzko Alderdi Jeltzalean lanean jarraitzen dugu bizilagunekin hartutako konpromisoak lortzeko bidean. Baina horrez gain, etorkizuneko proiektuak eta proposamenak ilusioarekin eta dedikazioarekin jorratzen ditugu baita ere. EAJ-PNV orain dela 123 urte sortu zen, eta urte horietan guztietan herriaren alde lanean egon gara, herrialdea erakitzeke lana egin dugu, betiere oinarrizko balioa udalean lan egitea izan delarik.

Katea ez da eten. Amaia Agirre Muñoa gure etxetara iritsi da, eta getxotarrekin duen bere lehenengo konpromisoak honako 3 lehentasunak ditu: ekonomia eta enplegu au-



tera berriak; Getxo bizitzeko, hazteko eta gozatzeko; eta zerbitzuen bikaintasuna: auzoak sustatuz. EAJ-

PNVko Getxorako alkategaia pertsonen, lantaldeek eta proiektuek osatzen duten katearen katebegi

berria da, eta kate horrek Getxoko bizilagunen babesa eta konfiantza du, gure herria kudeatzen eta hobetzen jarraitzeko hain zuzen ere. Ardura, zehaztasuna, zintzotasuna eta emandako hitza betetzea Amaia Agirre Muñoaren Euzko Alderdi Jeltzalearen balioak dira. Balio horiek izango dira proiektu berrien oinarria, Getxo bizia ametsa lortzeko, pertsonen bizitzako proiektuak garatu ahal dituzten lekua. Abangoardian dagoen Getxo, bere DNAn kultura, aniztasuna, hizkuntza, kirola, ingurumenarekiko konpromisoa, berdintasuna, eta bereziki etorkizun zirrargarria dituen. Gure ametsa Getxo sustatzen jarraitzea baita.

AMAIA AGIRRE

PSE-EE
PSOE

AZKEN TXANPA

Geroz eta gutxiago falta da hurrengo udal hauteskundeetarako. Egun batean udal honetako alderdi guztiek norbere burua azaldu behar izango dugu. Bakoi-tza bere balantzea egitea pentsatzen egongo da, batzuk besteak baino positiboagoak izango direlarik ziurrekin ere. Sozialistak gobernu gisa egin dugun kudeaketarekin pozik gaude. Gobernu Taldeko kideekin izaera sozialeko zenbait gai hitzartu ditugu, hauek besteak beste: eskola materialerako laguntzak edo dirulaguntzak, Ondasun Higiezinaren gaineko Zergaren (OHZ) dirulaguntzak eta partida ekonomiko garrantzitsua gure gazteen emantzipaziorako. Baina dudarik gabe, guztiz pozik gaude etxebizitzaren gaiarekin. Pedro Jauregi sailburuordeak dioen bezala "etxebizitza salgaia izatetik haratago doa". Funtzio soziala bete behar du. Horretan ari gara lanean. Udalak hitzarmena sinatu zuen Eusko Jaurilaritzarekin BOE araubidean alokairuko 136 etxebizitza eraikitzeke prozesua hasteko. 4.838.755€. Batzuen ustez udal ondarea zuzentasunez inbertitu da kasu honetan.

CS

LUDOTEKA HOBETZEKO ESKATZEN DUGU

Mozio bat erregistratu dugu udal ludoteka kopurua gehitzeko helburuarekin. Azterketa baten bitartez udaleko zein eraikin bideragarria den jakitea nahi dugu beste ludoteka bateko instalazioak kokatzeko, eta hala, udalerritarrentzako guztizko plaza eskuragarriak gehitu egingo liriteke. Badakigulako Getxon ludoteka bakarra egonik eskaintako plaza kopuruak ez duela betetzen bizilagunek egindako eskari kopurua. Gure ustez gobernu talde honen lan egin behar du zerbitzua gehitzeko eta herritarrentzako eskuragarria izan dadin lortzeko. **Helbide elektronikoa:** herritarrak@getxo.eus



"NEGURIKO ESTAZIOA" AISIALDI ZENTRORAKO PROPOSAMENA



BERRIKUNTZAREKIN

Etan gainera, kanpoko plaza berreskuratu eta "La Cantina" errespetatuko da.

BERRIKUNTZARIK GABE



BADATOR KANPAINAUREA!

Udalaren ohiko kudeaketak eraginak izan ditu Getxoko EAJak kanpainaurrea hasi duelako. Lehenik eta behin, Hondakinen Foroa bezalako espazioak desaktibatu dituzte, eta horietan talde politiko guztiak gaude eraginpeko kolektiboekin batera, eta horrez gain, hileroko informazio batzordeen edukia ere kendu egin dute kanpainaurrea dela eta. Gai horiek hilabete hauetan onetsi beharko liriteke osoko bilkuran, eta egin gabe geratzen ari dira, egoera ezjakinean: ordenantzak eguneratzea, finantza-

zio organoak sortzea Punta Begoña bezalako obra publikoetarako, etab. Eta bestalde, tratua eta informazio publikoa eskuratzea zailago izaten da. Hori guztia argitasunez ikusten dena geroz eta bistarago dagoenean, hau da, alderdiaren kanpainaurre hutsa dela. Gure taldearentzat arduragabetasuna adierazten du, baina ziurrenik EAJ eta antzeko alderdientzako ohiko jokaera da, 40 urte baino gehiago baitaramate boterean eta ez die gehiegi axola oraindik 6 hilabete faltatzea legegintzaldia bukatzeko. Ez da bateragarria garden-

tasuna, kudeaketa ona eta ardura saltzea horrelako interesen arabera dinamika gertatzen direnean. Bizilagunen erreklamazioak ere ez dituzte erantzun edo kanpainarako erabiliko dira? Ikusirik Gobernu Taldeak udatik izan duen funtzionamendua ez dugu uste estilo hori hobetuko dutenik eta gainbehera zuzenduko dutenik. GUKen gogor jarraituko dugu lanean, ardura guztiarekin, eta hala, kanpainaurrearen ondorioz ez dugu inolaz ere gure lana murriztuko.

ehbildu

ORMAZAN ERAIKITZEA EZ DA KONPONBIDEA

Hori adierazi genuen Ormaza 42.1 exekuzio unitatearen aldaketa hasieran udalbatzan kontra bozkatu genuenean. Orotara, 275 etxebizitza eraikiko omen dituzte gazteek Getxon bizi dugun etxebizitza arazoari irtenbidea emateko aitzakiarekin. Kurioso da baina, gehienak libreak izango direla, zehazki 150, 50 tasatu eta babes ofizialeko 75. Oraindik ez dakigu zein erregimenetan joango diren azken horiek, alokairuzkoak izango diren edo ez. Gure galderak hauexek dira: zenbat gaztek eros dezake etxebizitza



libre berri bat gure herrian? Zenbat gaztek eros dezake etxebizitza tasatu bat

gure herrian? Hori erabakitzen dutenek gure auzoko kaleak zapaltzen al dituzte? Konponbidea saltzen digute, konponbide errealek ekarri gabe gure herriko gazteriari. Bestalde, zonaldea osatzen duten baserri guztien gordetzea ezinbestekotzat jotzen dugu, jabeek mantendu ahal izatea. Auzokide asko dira urteak daramatzatenak euren etxeak mantendu ezinik, birgaitu ezinik. Horrek aditzera ematen du zer-nolako begirunea dion gobernuak gure ondare arkitektoniko eta kulturalari.